MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

KATU ARTISTAK

LES CHATS ARTISTES



LABAYRU FUNDAZIOA

AUDIO LIBURUA

IPUINA ENTZUN

ÉCOUTE LE CONTE

Munduenea, munduko ipuinen etxea online

www.munduenea.labayru.eus

© LABAYRU FUNDAZIOA. 2022
EDITOREA: LABAYRU FUNDAZIOA (ZIORTZA ARTABE, IGONE ETXEBARRIA, AKAITZE KAMIRUAGA ETA BIOSNE ZARANDONA)
COLON DE LARREATEGI 14, 2. ESK. 48001 BILBO
WWW.LABAYRU.EUS

JATORRIZKO TESTUA ETA AHOTSA: JOSEPH WHELAN
TESTUEN MOLDAKETA ETA AHOTSA EUSKARAZ: YOLANDA ARRIETA
ILUSTRAZIOAK: ENRIQUE MORENTE
MAKETAZIOA: BIKO KOMUNIKAZIOA
INPRIMATEGIA: GERTU
I.S.B.N: 978-84-19063-13-7
LEGE GORDAILUA: BI 01394-2022

LAGUNTZAK: EGITASMO HONEK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK JASO DITU.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org, 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

KATU ARTISTAK



LES CHATS ARTISTES

LabayruFundazioa

HIZTEGIA
VOCABULAIRE

- Katu = Chat
- Artista = Artiste
- Janari = Nourriture
- Abestu = Chanter
- Dantzatu = Danser
- Txantxak egin = Plaisanter
- Arrain-saltzaile = Poissonnière
- Harakin = Boucher
- Okin = Boulangère
- Elkarrekin = Ensemble



Ipuin hau Frantzian kokatzen da. Frantsesa munduko bosgarren hizkuntzarik mintzatuena da, eta 29 herrialdetan hizkuntza ofiziala. Izan ere, frantses-hiztun gehien Afrikan bizi dira.

Cette histoire se déroulant en France est écrite en français, cinquième langue la plus parlée au monde et langue officielle de 29 pays. En fait, la plupart des francophones vivent en Afrique.



(1) BURKINA FASO - (2) TOGO - (3) BENIN - (4) KAMERUN - (5) EKUATORE GINEA - (6) VANUATU



Frantziako bihotzean katu bat bizi zen.

Abesten, dantzan eta txantxak egiten zekien. Katu artista zen. Eta zekien guztia erabiltzen zuen janaria lortzeko.

Un chat vivait au cœur de la France. Il savait chanter, danser et plaisanter. C'était un chat artiste. Et il utilisait tout ce qu'il savait pour obtenir de la nourriture.



Goizetan, arrain-saltzaileari abesten zion.
Eta hark sardina, ordainetan.


Eguerdietan, harakinari dantzan. Eta hark haragia, trukean.

Arratsaldeetan, txantxak okinari. Eta hark croissantak opari.

Tous les matins, il chantait pour la poissonnière.
Et elle lui donnait une sardine en échange.

À midi, il dansait pour le boucher.
Et il lui donnait de la viande en retour.

L'après-midi, il plaisantait avec le boulanger.
Et il lui offrait des croissants.




ENE DENDARI GALAIA,
BIHOTZ-ZABALA ETA ALAIA.
ZURI ESKER HORNITZEN DUGU
GOIZERO GURE MAHAIA!
CHER COMMERÇANT GALANT,
A CŒUR OUVERT
ET AVEC BONHEUR,
GRÂCE À VOUS
NOTRE TABLE EST COMBLÉE,
CHAQUE JOUR QUI PASSE !
BOULANGERI

Goiz batean, dena aldatu zen, ostera. Beste katu bat zegoen kantuan arrandegian:

Mais un matin tout a changé. Il y avait un autre chat qui chantait dans la poissonnerie :

Arrain-saltzaile aparta,
Eiffel dorrea bezain xarmanta.
Zuri esker betetzen dugu
egunero gure tarta!

Grande poissonnière,
aussi charmante que la Tour Eiffel.
Nous remplissons grâce à vous
notre ventre tous les jours !





Arrain-saltzaileak katu arrotzari eman zion sardina.

La poissonnière a donné la sardine au chat intrus.



—Arrain hori niretzat zen —argitu zuen katu artistak—. Neu naiz kale honetako artista!

—Arrain-saltzaileak neuri eman dit —erantzun zuen arrotzak—. Neuk kantatu diot.

—Aurrea hartu didazulako!

—Erdibana egingo dugu?

— Ce poisson était pour moi, dit le chat artiste.
Je suis l'artiste de cette rue !

— La poissonnière me l'a donné, répondit l'intrus.
C'est moi qui ai chanté pour elle.

— Parce que tu m'as devancé !

— On se la partage ?



Katu artistak erantzun zuen:
—Neu hasi nintzen lan honetan! Ekarri hori hona!

Le chat artiste répondit :
— C'est moi qui ai commencé ce travail ! Apportez ça ici !



Arrotzak ahoan hartu zuen sardina, eta ospa!
L'intrus disparut, la sardine dans la bouche.

Katu artistak baraurik igaro zuen goiza, eguerdiaren zain.

—Ea harategian ezer lortzen dudan…

Le chat artiste a passé la matinée très affamé, dans l'attente du déjeuner.

— Voyons ce que j'obtiens à la boucherie…



Harategira heldu, eta arrotza dantzan!


—Katu zaputza!

Harakinak arrotzari eman zion txuleta.

En arrivant à la boucherie, l'intrus était en train de danser.

— Maudit chat !

Le boucher tendit la côtelette à l'intrus.







Katu artistari ileak harrotu zitzaizkion.
—Grr! Zer esan dizut lehen?!
Arrotzak biboteak mugitu zituen.
—Erdibana egingo dugu?

Les poils du chat artiste se sont hérissés.
— Grr ! Qu'est-ce que je t'ai dit avant ?
L'intrus a secoué ses moustaches.
— On se la partage ?





—Gortuta zaude?! —erantzun zuen katu artistak—.
Ekarri hori hona!
Arrotzak ahoan hartu zuen txuleta, eta ospa!

— Es-tu sourd ? le chat artiste a répondu. Apporte ça ici !
L'intrus est parti avec la côtelette dans la bouche.

Ez gosaririk, ez bazkaririk… Ahul zebilen katu artista baraurik. Eta pentsatu zuen:

—Neuk hartuko diot aurrea oraingoan!

Sans petit déjeuner, sans déjeuner… Le chat artiste était très faible sans avoir mangé. Et il pensa :

— Cette fois, j'y arriverai en premier !



Okindegira iristean, jendetza zegoen ate aurrean.

—Zer gertatzen da?

—Su hartu du okindegiak!

Quand il arriva à la boulangerie, il y avait une foule devant la porte.

— Que se passe-t-il ?

— La boulangerie a pris feu !



Garrak handiak; kea, beltz-beltza.
Krask!, erori zen habea atarira.

Grandes flammes; fumée noire.
Boom ! la poutre est tombée sur l'entrée.



—Okina barruan dago! —oihukatu zuen arrain-saltzaileak.

—Zerbait egin beharra dago! —esan zuen katu artistak.

— Le boulanger est à l'intérieur, cria la poissonnière.

— Nous devons faire quelque chose ! a déclaré le chat artiste.





Bat-batean, katu arrotza agertu zen.
—Zatoz! —esan zion katu artistari—. Zirrikitu batetik sartuko gara!

Soudain, le chat intrus est apparu.
— Viens ! Il lui dit. Passons par un trou !



Ez bat, ez bi. Katu biak garretan murgildu ziren elkarrekin.

Sans réfléchir une deuxième fois, les deux chats ont plongé dans les flammes ensemble.

Lurrean zegoen okina, konortea galdurik, kearen ondorioz.

—Hemen! —oihukatu zuen katu jada ez hain arrotzak.

—Banoa! —erantzun zuen katu artistak, eta zaku bete irin hustu zuen sua itzaltzeko.

Le boulanger gisait sur le sol, inconscient à cause de la fumée.

— Ici ! le chat pas si intrus a crié.

— J'y vais ! répondit le chat artiste, et il vida le sac de farine pour éteindre le feu.





—Ekarri hona! —oihukatu zuten suhiltzaileek, sarrera libratzen zuten bitartean.

— Amenez-le ici ! ont crié les pompiers en dégageant l'entrée.



Katuak berehala antolatu ziren.
—Zuk heldu hortik eta nik hemendik.
—Bagoaz!!!
Onik atera zen okina sutetik, katu biei esker.

Les chats se sont immédiatement organisés.
— Toi tu l'attrapes par là et moi par ici.
— Nous y voilà !
Le boulanger a survécu à l'incendie grâce aux deux chats.



Herritarrek jataldia antolatu zuten haien omenez eta katuek sekulako emanaldia eskaini zuten, esker onez.

—Badakizu gauza bat? —esan zuen katu artistak.

—Zer?

—Bakarrik baino hiru aldiz gehiago lortu dugu elkarrekin. Jarraituko dugu horrela, herriz herri?

—Miau!

Les habitants ont organisé un dîner en leur honneur et les chats ont fait un beau spectacle pour les remercier.

— Tu sais quelque chose ? dit le chat artiste.

— Quoi ?

— Ensemble, nous avons accompli trois fois plus que tout seul. Allons-nous continuer ainsi, de ville en ville ?

— Miaou !



Eta miau-miau, marramiau, katu biak ospetsu egin ziren, bai hura eta bai hau!

Et miaou, miaou, marramiaou, les deux chats sont devenus célèbres, par ici et par là.



MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

*Munduenea. Munduko ipuinen etxea*n hamar ipuin batu ditugu, gure artean bizi diren kultura ezberdinetako hiztunei jasota. Bilduma 6-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Inguruko kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarkigun aberastasuna ipuinen bidez erakustea da helburua. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz entzun eta irakurri ahal izango dituzu. Munduko ipuinen etxera sartu nahi?

Munduenea. Munduko ipuinen etxea est une collection de dix histoires, issues de nombreuses autres cultures qui coexistent dans notre environnement, destinée aux garçons et aux filles de 6 à 10 ans. A travers les histoires, il vise à montrer la richesse qu'apporte notre diversité de cultures et de langues. Entrez dans la maison des histoires et découvrez-les à la fois dans la langue originale et en basque.




MUNDUENEA
HITZA HITZ
A PALABRA É A PALABRA
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
DEABRUAREN ZUBIA
EL PONT DEL DIABLE
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
GIZON ABERATSA
ایک امیر آدمی
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
EID AL FITR-EKO OPARIA
هدية عيد الفطر
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
MATSU, ITSASOKO JAINKOSA
妈祖，海上之神
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
DORTOKA ZEKENA
IJAPA OLOJUKOKORO
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
ZORIONTSU IZATEKO GAKOA
CAABI NGIR AM MBËKTE
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
TXILI'BITU MAGIKOA
FLUIERAȘUL MAGIC
AUDIO LIBURUA


MUNDUENEA
CAIPORA
AUDIO LIBURUA



9 788419 063137

LabayruFundazioa